



2015-2019 LEGEALDI PLANA

AZALPENA

Legegintzaldiko lehen udal batzan batzordeak eratu eta gero bigarren udalbatzan legegintzaldi plana onartzeko proposamena da hau. Proposamen hau egiteko bai Izal Bai eta baita EHBilduk hauteskundeetarako aurkeztu zituzten programak hartu dira kontuan eta bertan legegintzaldiko ildo orokorrak zehaztu dira, batzorde bakoitzari bideorria markatuko diotelarik. Orain batzorde bakoitzean landuko dira bideorri horiei erantzungo dieten urteroko ekintza planak, urteroko aurrekontuetan ezarriko direnak.

Legegintzaldi honetarako markatu diren lehentasun nagusiak ekonomia garapena, ongizate eta elkarbizitza, eta legegintzaldiko inbertsio plana dira.

LAN ILDO OROKORRAK

BATZORDEKAKO LERRO NAGUSIAK

MENDI ETA BASERRI BATZORDEA

- Landa bideen mantenimentu plana.
- Larreen hobekuntza eta nekazaritza aktibitateetarako eremuak egokitzea.
- Gaztaren mamia proiektua garatzea.
- Landa eremuko auzoen biziberritzea.

ONGIZATEA ETA ELKARBIZITZA BATZORDEA

- Ongizate zerbitzuen gerturatzea.
- Pilar Enea zentru polibalentea izatea.
- Elkarbizitza plana EGIN ETA GARATZEA. Aniztasuna eta tolerantzia.

KULTURA, KIROLA ETA EUSKARA

- Ezagutzaren kultura sustatzea.
- Herri dinamikoagoa egitea. Biziberritzea.
- Euskararen erabilera eta ezagutza sustatzea. Pedagogia.
- Kirol ekipamenduen kudeaketa hobetu.
- Jarduera fisikoa modu eraginkorragoan kudeatu.

EKONOMIA BATZORDEA

- Ekintzailetasun kultura zabaltu eta ekintzailetasuna sustatu. Ekonomia kontseilua.



- Turismo zerbitzu aukerak aztertu eta garatu. Modu ezberdinetako alojamentu eta Jatetxeak erakarri eta sustatu.
- Gaztaren mamia proiektuaren barnean, bertako produktuak eta bertako komertzioa sustatu. Ekonomia lokala.

HIRIGINTZA, ZERBITZUAK ETA INGURUMENA

- Plan orokorra behin betiko bukatu eta martxan jarri.
- Ingurumen eta gastu irizpideengatik herriko argiteria hobetzen jarraitu.
- Garraio publikoen erabilera sustatu.
- Oinezkoentzako herri erosoago eta seguruagoa izateko landu.
- Etxebizitza aukerak sortu. Batez ere gazteentzat.

INBERTSIO PLANAREN TAULA

Ondorengo taula hau inbertsio planifikazio bat da. Aurreikuspen bat, honi erantzutea da legegintzaldi plan honetan proposatzen dena, eta berau zian dadila aurrekontuak lantzerako garaian kontuan hartu beharrekoa. Baliteke beste urgentzia batzuek aldaketaren bat eragitea, baina ahal den neurrian hau betetzeko lan egin behar dugu.

PROIEKTUA	2015	2016	2017	2018	2019
PILOTALEKUA	79.000	120.000	-	-	-
ZEPAI ZIGOR	10.000	100.000	-	-	-
LARREEN HOBEKUNTZA	40.000	40.000	40.000	40.000	-
GURUTZE BERRI	-	50.000	200.000	200.000	200.000
ETZEGARATEKO PISTA	-	40.000	40.000	40.000	-
KULTUR ETXEA	-	-	-	20.000	100.000